

# «Energia berriztagarrien bidez egingo zaio aurre egungo energia krisiari»

Jeremy Rifkin ekonomialari eta energian aditua Naturaldia 2008 jardunaldietan izan da

AINARA ARRATIBEL  
Donostia

Gas naturalaren nahiz petrolioaren agortzeak eta berotegi efektua eragiten duten gasak murrizteko gobernuek hartutako konpromisoek ezinbestekoa egiten dute energia iturri berrien aldeko apustua egitea. Horixe uste du, behintzat, Jeremy Rifkin ekonomialari eta energia gaietan adituak. Hala, energia berriztagarrien alde egiten du. «Energia berriztagarrietan oinarritutako gizartea posible da, horien bidez egingo zaio aurre egungo energia krisiari», iritzi dio Rifkinnek. Hala, eta energia berriztagarriek nahiz teknologia berriek eraginda, Hirugarren Industria Iraultza abiatuko litzateke, haren ustez. «Halako iraultzak beti ematen dira energia eta komunikazio erregimen berriek bat egiten dutenean, eta hau da kasua», dio Rifkinen ustez.

Egunotan Naturaldia jardunaldiak egin dira Tolosan (Gipuzkolan), eta horietan hartu du parte Rifkinnek. Europako Batasuneko energia aholkularia da, besteak beste, Rifkin. Haren arabera, energia berriztagarriak dira Hirugarren Industria Iraultzaren lehen oinarria. Europako Batasunak onartutakoaren arabera, hura osatzen duten herrialdeetan kontsumitzen den energiaren %20 berriztagarria izango da 2020. urtean. «Horiei esker, energia ez da elite baten kontua izango, denen eskura egongo baitira energia horiek sortzen dituzten haizea, eguzkia,



Jeremy Rifkin atzo Donostiako Foru Aldundian emandako prentsaurrekoan. JON URBE / ARCAZKI PRESS

olatuak, zabor organikoa...». Badiara, horren aurrean, energia nuklearraren alde egin dutenak. «Energia mota horrek ez du etorkizunik. Segurtasun aldetik arazo asko sortzen ditu eta oso garestia da. 50 urte daramatzagu harekin lanean, eta ez dakigu sortzen dituen hondakin nuklearrak nola garraiatu eta lurperatu».

Egun 439 zentral nuklear daude, eta munduko energiaren %5a ekoizten dute: «Zentral asko oso zaharkituak daude, eta ez dut uste guztiak ordezkatzuko direnik. Gainera, klima aldaketan ondorio onuragarriak izateko energia nu-

**«Energia nuklearrak ez du etorkizunik. Segurtasun aldetik arazo asko sortzen ditu, eta oso garestia da»**

**«Sare elektrikoak gero eta independenteagoa izan behar du elektrizitate konpainiekiko»**

**«Energia berriztagarriei esker, energia ez da elite baten kontua izango, denen eskura egongo baita»**

JEREMY RIFKIN  
EKONOMIALARIA ETA ENERGIAN ADITUA

klearraren ekoizpena %20ra iritsi beharko litzateke, eta horretarako pentsa zenbat zentral eraiki beharko liratekeen».

Energia berriztagarrien aldeko apustu horretan, ezinbestekoa ikusten du haiek jasotzeko azpiegitura bat izatea. Hala, energia pilatu eta sortzeko gai izango liratekeen eraikinak sortzea proposatzen du. Dagoeneko munduan eraiki dira halako hainbat azpiegitura. Horren adibide jarri du Huescako (Aragoi, Espainia) Walqa teknologia-parkea. Parke horrek han bertan sortzen du energia berriztagarria, eta horren bidez sortzen

da parkeak dituen behar energetikoei aurre egiteko behar den elektrizitatea. «Edozein eraikin izan daiteke, gainera, energia bildu eta sortzeko gai: bulegoak, etxebizitzak, merkataritza gunak... baldin eta horretarako prestatzen badiara». Eraikin horiek izango dira Rifkinen esanetan, iraultzaren bigarren oinarria.

Baina energia berriztagarrien erabilera handitu eta haien kostua txikitzeko beharrezkoa ikusten du haiek metatzeko sistema garatzea, egun energia berriztagarriaren kopuru handi bat alferrik galtzen baita. «Hidrogenoa da horretarako elementurik egokiena, energia berriztagarria guztiak metatzeko gai baita, eta sare elektrikorako hornidura nahiz garraio egonkorra eta fidagarria eskaintzen du». Kontuan izan behar da hidrogenoa unibertso elementurik arinena eta ugariena dela. Hidrogenoa litzateke beraz Hirugarren Industria Iraultzaren oinarria.

**ENERGIA PARTEKATZEKO SAREA.** Behin energia horien metatzea ziurtatuta, Interneten antzekoa litzatekeen sare bat sortzea proposatzen du, energia partekatzeko. «Informazioarekin egin bada, zergatik ez elektrizitatearekin? Gaur egungo energia fluxu zentralizatu eta hierarkikoa zaharkitua dago».

Europako Batasuna dagoeneko energia plan berria prestatzen ari da gaur egun sare hori sortu ahal izateko. «Horretarako sare elektrikoak gero eta independenteagoa izan behar du elektrizitatea sortzen duten konpainietatik. Ahalik eta gehien banandu behar da haiengandik». Sare hori sortzean, Europako Batasuneko kide den herrialde bakoitzak aukera izango du bere energia sortu, eta soberan duena beste herrialdeekin partekatzeko. Rifkinen ustez, oso garrantzitsua da Europako Batasunak erabaki hori hartu izana, Hirugarren Industria Iraultzaren buruan jartzen baita. «Abantaila komertzial handia izango du horri esker».